

⇒ Hizpide ⇒

Kultura-dibertsitatea?

GUSTAVO PUERTA LEISSE

Miel A. Elustondok itzulita




Kultura-dibertsitatea?

I.

Kultura-dibertsitatea estereotipo bihurtu da. Hori, paradoxikoa ez ezik, sintomatikoa ere bada. Termino hori integrazioari, tolerantziari, bakeari, berdintasunari... lotzeak, errealitate egingarria edo lortu beharreko helburua baino areago, zera erakusten du: ikurrin-idea horretan ezartzen ditugun itxaropen eta irrikak, hari atxikitako oinarri ideologikoa eta, guri dagokigun puntuan, literaturaren ikusmolde funtzionalista.

‘Kultura-dibertsitatea’ eraikuntzak berak balorazioa esan nahi du, hau da, agerian uzten ditu gaiari heldu aurretik ere ditugun mugak. Kultura-dibertsitatea berez zerbait positibo, on eta desiragarritzat hartu ohi da. Eta, hori, bi aldetatik. Batetik, *dibertsitatea* aberastasun, aldaera, on eta desiragarriarekin identifikatzen du. Izatez, biodibertsitatearekin lotzen dugu termino hau. Eta,





analogia horretatik abiatutik, ohikoak dira tes-tuinguruz kanpoko arrazoi ekologiko okerrekin giza eremuan proiektatzen dituzten estrapolazioak. Dena den, irudi adeitsu horren kontra, baliteke terminoak hartu duen kutsu positiboak beste estrapolazio are naturalago bati zor izatea azalpena: eskaintzaren barietatea eta merkantziaren dibertsitatea kapitalismoaren eta kontsumo-gizartearen balioak dira, gure eguneroko bizitzan sustraiturik eta oso presente daudenak.

Dibertsitate terminoa erabiltzen dugunean, balorazio arbitrariotik abiatzen gara, eta *kultura* hitzarekin ere ez da bestela gertatzen. Izen horren bidez, dibertsitatean murgildurik dauden kulturen aniztasuna ulertzen da. Kulturena, eta ez Kulturarena. Alegia, gizarte ezberdinak, elkarren artean nabarmen ezberdintzekoak, aldi berean daudenak, elkarri eragiten diotenak eta elkar ezagutzen dutenak. Kultura-dibertsitatea homogeneotasunaren, eta are gehiago, hegemoniaren, kontrakotzat hartu ohi da. Hala eta guztiz ere, espainiar haur eta gazte literaturaren kasuan, kultura-dibertsitatearen arrazoiak ekoizpen nazional homogeneo, estereotipatu eta etnozentrismo legitimatza datorren diskurtso hegemonikoa bihurtu da.

II.

Haur eta gazte literaturak kultura-dibertsitateari erantzun behar diola usteak berak literatura-ren ikuskera erabilgarria esan nahi du eta, are zehatzago, funtzionalitate pedagogiko, politiko eta morala. Beste behin ere, ondo legoke, beharbada, haur-ipuina, gazte-nobela eta, hitz batean, zeinahi arte-adierazpen, haur-gazteen kontzientzia hezi, zaindu eta moldatzeko bitartekotzat erabiltzeko asmo mengel inozoa hankaz goratzea. Ondo legoke, beharbada, asmo oneko uste zabaldia zalantzan jartzea: alegia, uste izatea aski dela gaztetxo batek diskriminazioaz, anorexiar, drogez, eskola-jazarpenaz, terrorismoaz... narrazio-lan bat irakurri, irakasleak edo bitartekariak delako gai hura «landu» –dagokion irakurketa-gidaren laguntzaz–, eta ikasleak (balizko biktima edo biktimagile) arrisku-egoeraz «kontzientzia hartzeko» eta inmunizatze, bere erabaki moral, sokratiko eta arrazionalari esker.

Alabaina, era horretako azterketa kritikoa egiteak berarekin dakar irakurketaren, heziketaren, sorkuntza literarioaren, ilustrazioaren eta argitaratze-industriaren irudi nagusia auzitan jartzea; zintzotasun-ariketa eta nork bere buruarekin eztabaidan jardutea eskatzen du, hots, haur-irakurketa inguratzen duten barruti profe-



sionalek dituzten interes ekonomiko eta politiko-koen kontrako ariketa, modako diskurtso zeharo autoatseginen aurkakoa. Egin ditzagun, bada, norabide horretara zuzentzen duten zenbait galdera: nolakoa ote litzateke ikusmolde erabilgarririk gabeko haur-literatura, besteak beste, helburu pedagogikorik gabekoa?, zer, nork eta zenbat argitaratuko litzateke?, nola eragingo lieke aldaketa horrek irakurketa kuantitatibo-kualitatiboei?, argitaratze-industriak iraungo ote luke?, zertaz hitz egingo litzateke argitalpen berezituetan, ikastaroetan, biltzarretan?, nola eragingo lieke aldaketa horrek haur-literaturak gizartean duen irudi-presentziei?, posible da kultura-dibertsitatea haur eta gazte literaturari dagokionean?

III.

Ez dago kultura-dibertsitatetik urrunago dagoenik, kontrakoagoa denik, haur-literaturako ekoizpen nazionala baino. Nahiz eta tituluak erruz baino erruzago argitaratzen diren, arlo honetan zuzen eta zehar ari diren profesionalak gero baino gehiago izan, eta sektorearen egoera ekonomikoa ona izan, eskaintza homogeneoa da gehienbat eta, kapitalizatu, argitaletxe talde handiek, azalera handiko salmenta guneeek, eskola askoren aginduek eta merkatuaren iritzi eta joerak

asebetetzen dituen sortzaile kopuru txiki baten hegemoniak kapitalizatzen dute eskaintza hori. Salbuespenen bat izan ezik, argitaletxe txikiak handiak bezalatsukoak dira (beren zenbatekoetan salbu), idazle eta ilustratzaile gutxi sortzen dute sendotutako ildoetatik landa, eta proiektu dibergenteak nekez ezagutzen dira eta, esango nuke, nekez ulertzen dira.

Ez kulturarik, ez dibertsitaterik. Eta, hala ere, kultura-dibertsitate handia. Haur amerindiar edo Saharar hegoaldekoitsuak, kolonbiar lekualdatuak, vietnamdar errefuxiatuak, indiar etsituak, saharar zapalduak, pakistandar esklabo bihurtuak, thailandiar prostituituak, argentinar eta mexikar desagertuak, diren eta ez diren gerra guztietako biktimak ageri dira nobeletan... hau da, miseria eta Hirugarren Mundua, asko; baita ukrainar baleak, tuvar zaldiak, tratu txarrak jasotzen dituzten txakurrak, lehoi ehizatuak, komertzializatzen diren krokodiloak...; eta, jakina, anorexikoak, bulimikoak, autistak, neumotoraxikoak, gorrak,itsuak, mutuak... eta era guztietako «dibertsitate funtzionalak» dituzten neska-mutilak; minbizia dutenak, hiesa, Williamsen sindromea, parkinsona... Baina, hori bai, kasu guztietan, ziurra da amaiera zoriontsu eta bakegilea.

Aipatu ditugun kasu guztietan, haur baztertu,

zapaldu edo gaixoaren irudikapena, haren testu-
guru eta kultura, estereotipo baten arabera
dira. Haur eta gazte literaturako espainiar idazle
«konprometituen» (edo «bihozberak», beren
buruari orain esaten dioten moduan) begira-
dak beraien eskema proiektatzen du bestearen
errealitatean, eta horretara murrizten dute.
Indarrean dauden estereotipoak zalantzan jarri
ez eta, kultura-dibertsitateari erantzuten dioten
lan hauek, irudi aurrefabrikatu, aurredigeritu
eta, azken batean, etnozentrista aldarrikatzen eta
indartzen dute. Konbinazio bat da: «Basapiztia
zintzoa» dugu –erromantizismo handiarekin–,
errealitatearen ikusmolde manikeoa dugu, hizkera
sentimentalista dugu –behin baino gehiagotan
sentsazionalismo bihurtzen dena–, eta, batez ere,
hurbilketa instrumentalak istorioak harilkatzen
ditu narrazio-arau batetik abiatuz eta non hur-
koarekiko kezka ez den aitzakia besterik.

Bestearen errealitatea objektibatuz eskaera
komertzial bati erantzuten dioten liburuak dira
hauek. Markaren irudia produktuaren gainetik
dagoen transakzioa elikatzen dute, transakzio hor-
rixe erantzuten diote. Ahalik eta ahalegin txiki-
ena egitea agintzen duen ekonomia-premisa betetzen
duen merkantzia bihurtzen dute inoren miseria:
idazte arina erakusten dute eta oso erraz irakur-
tzeak dira, ez diotelako hartzaileari ezohiko
gaitasunik eskatzen. Eragiten dituzten irakurketa-
erantzunak homogeneoak dira, biltzen dituzten

irakaspenak identifikaerrazak eta gizartean bali-
garritzat jotakoak. Paradoxikoki, salaketa-lanok,
elkartasun-arrazoibideok, espiritu libre, idealista
eta irredenteen matxinatzeok pasibotasuna, ones-
pena eta konformismoa laguntzen dute.

Bestalde, bitartekari batek honako liburu
hauei heltzen dienean, ez datorkio gogora kultura-
dibertsitatearen ideia: Anushka Ravishankar eta
Pulak Biswas-en *El tigre trepador* (Thule), Shinta
Chô-ren *Goro, goro, miao, miao* (Glénat), Angela
Lago-ren *De noche en la calle* (Ekaré), Michael Ro-
sen eta Quentin Blake-ren *El libro triste*, Charles
Perrault-en eta Japoniako hogeita bat ilustratzaile-
ren *Érase 21 veces Caperucita Roja* (Media Vaca),
Robert Levine-ren *Una geografía del tiempo* (Siglo
XXI), Karl Philipp Moritz eta Wolf Erlbruch-en
El nuevo libro del abecedario (Barbara Fiore), Will
McBride-ren *¡A ver!* (Lóguez), Tosi Maruki-ren *El
destello de Hiroshima* (Miñón)... Kultura-diber-
tsitateari ez dator burura. Aitzitik, era horretako
lanek talka egiten dute aurreiritzi, estereotipo eta
beldur finkatuen aurka. Horregatik, helduaren
ohiko joera da haiek gutxiestea, edo haur eta gaz-
teentzako *bestelako* liburu modalitate bat direla ez
antzematea. Ikusmolde hegemoniko, etnozentrista
eta, azken finean, intolerantea? Seguru asko. Izan
ere, antza, modu bat besterik ez dago haur eta gazte
literaturatik kultura-dibertsitateari begiratzeko:
gurea, erabilgarritasuna. Horregatik da egokia
baino egokiagoa galdera: irakur liteke ezberdin?

Galtzagorriko Asuni, sareen artean lagun.

